



errege

Jaungoikoaren borondatea dan bezala, Suezia-n Errege bat dago. Tira, erregetza Jaungoikoaren nahia dala Santo Tomas Akino-koak esaten du. Eta egia esan behar bada, Stokolmo-n ez dute asko agintzen Santo Tomas-en iritziek. Baina Erregeak ere, egia esaten jarraitzeko, oso gutxi agintzen du Stokolmo-n.

Suezia, mundu guztiak dakien bezala, oso aurreratutako herria da. Jendeari bihotzaren sekretuan inbiri handi bat sortzen dion beste gauza asko ere ba da Suezian, noski. Baina Suezia-n ez da bizimodua, halare, predikatzaleek esan ohi duten bezain trixtea. Ez da egia, beti esan ta entzuten dan arren, beste inun baino buruhiltze edo suizidio gehiago gertatzen dala han. Eta egia da Suezia-n buruhiltzerik ez

dala falta: baina oraindik ez da demostratu horren errua Erregeak duenik. Eta halare Suezia-n sozialista gazteek ez dute Erregerik nahi.

Gainera, Suezia-n, tradizio beneragarri bat da Erregea. Turista-gidariak milla Erregeen bitxikeria kontatzen dizkigute. Erregearen zaldia ere errespetagarriak dira Stokolmo-n. Bai, Stokolmo-k Erregez beteta dagoen impresioa ematen du: Erregearen Teatroa, Erregearen Opera, Erregeen koroazio-eliza, Erregearen kaia eta nunahi eta baztar guztietan Erregea. Erregearen izena, esan nahi dut, ezen-eta Erregea bera ez baita inun agiri. Han dago, kanalen ondoko jauregi galantea. Han bizi da pake-pakean, eizera-edo aldegin ez duenean behintzat. Noizean behin Operarata agertzen da, ta orduan

tronpeta jotzen diote Erregeari. Izan ere, jauregiaren hiru laurden nazionalizatu egin zizkietenetik, ezin du Erregeak bere etxean ere agindu. Suezia-ko sozialista gaiztoek ez daukate tradizio beneragarrien errespetorik batere ta bulego (edo ofizina) bihurtu dituzte Erregejauregiko zatirik handienak eta ederrenak. Hemen gertatzen diote Erregeari politika, eta Erregeari beti ondo iruditzen zaio. Horrela, Erregeak batzutan sozialista izenpetzen du, eta besteetan liberal. Hori bai, majestadezko kaligrafia bereziarekin izenpetzen du beti.

Baina Suezia-n tradizio beneragarri bat da Erregearen jauregian sozialistek ere pake-pakean lanegitea. Suezia-n ez daude ondo ikusita radikalismoak. Batez ere politikan eta hola. Baina nola az-

bat dago suezia-n

kenaldian Mallorca-ra gehiegitxo etortzen diran, Suezia-ko sozialista gazteek gurasoen tradizioen errespeto guztia galdu dute. Eta hala idatzi dute, gau batean, Erregearen jauregi-atarirako sarreran, ez Santo Tomas-en izena, baizik-eta: **KARL MARX**. Baina halare, modu onak ez galtzeko, tinta zuriz idatzi dute, ez pintura beltz edo gorriz. Begira zegoen goardiak ez zuen letreroa borratu, ez baitzion iflork agindu hori egiteko. Izan ere, Suezia-n antidemokratikoa da holakoxe gustorik gabeko letreroa Erregearen atarian idaztea, baina borratzea ere bai.

Eta ez da ahaztu behar Suezia demokrazia klasiku bat dala. Alegia, erlijio askatasuna lardats asko dabil kalean, baina paper guztietan dago aseguratuta. Kultura ere altu dago Suezia-n.

Alegia, Uppsala-ko Bibliotekan daukaten **Codex Argenteus** famatua Italia-n idatzi zan, baina haren izen onak Uppsala guztia arrotzen du. Museo ta elizetan agiri diran irudi, erretablo ta pintura ederrenak inportatuak dira (beti izan zan konkistatzailléen eskubide, hola-koak "salbatzea"), baina berdin balio dute Suezia-ko artearen ospea altxatzeko. Gainera, Suezia-k salbatu zuen protestantismoa, arrazoia armatuta zebillen denporan (gaur desarmatuta dabil gizajoa). Alegia, elizkizunetara ez dira lau katu agertzen, baina elizak zabal-zabalik daude (turistentzako). Gainera, elizan sartzeko ez dago pagatu beharrik, Dinamarca-ko Roskilde-n egin behar zan bezala. Baina larunbat arratsaldean leporaino betetzen dira elizak Suezia-n, konziertoa entzutera dato-

rren jendez.

Paraje zoragarriak daude Suezia-n. Gammla Uppsala-ko muinoak (aspaldiko Erregeen hillobiak dira muino-ok), lago erromantikoak, Skanör-eko ondartza trixtea, itsaso beltzarekin. Paraje zoragarriak, eta halare, nuanahi ikusten da Mallorkara joateko propaganda. Nykoping-eko estazioan euskal pelotari bat ere agiri zan (orman esegita, jakina!), baina Turismo-ko Ministerioren batetik zetorren eta ez dut uste euskeraz zekienik.

Halaxe da. Suezia-k kondaira gogorra dauka, itsaso otza ta hilluna dauka, bizi-modu galestiegia ta baso azkengabeak dauzka, munduko poxpolo-industriarik handiena dauka. Erregea ere ba dauka. Eta halare, lastimarik ez dauka munduak Suezia bat besterik.